

DOMUSA TEKNIK 40 MLK



DOMUSA TEKNIK

40 MLK

65KM +3700
8:00h

26KM +1400
9:00h

AZPEITIA | 2026-05-09

IKUSLEARENTZAKO GIDA 2026

www.domusateknik40mlk.com

Lagun Onak Mendi Bazkunak (LAGUN ONAK MB) **DOMUSA TEKNIK 40 MLK**-en bostgarren edizioa eta **DOMUSA TEKNIK 15 MLK**-en hirugarren edizioa antolatu ditu. Berauek Azpeitia eta inguruko herrietan (Errezil, Bidania-Goiatz eta Beizama) igaroko diren 65 Km eta 26 Km-ko mendi lasterketak izango dira, 1000 partehartzaile baino gehiago izango direlarik bi distantzietan.

Honako dokumentu honetan ikuslearentzako ezinbestekoa den informazioa agerida: egitaraua eta lasterketa ikusteko gune interesgarrienak.

Lasterketak maiatzaren 9an ospatuko dira. Kirol-probak, Azpeitian hasi eta amaituko dira, eta, bitartean, eskualdeko honako herri eta mendi tontorretatik igaroko dira:

- Herriak: Azpeitia, Errezil, Bidania-Goiatz eta Beizama.
- Mendiak (metroak): Arroita edo Arauntza (612), Sañu (616), Gazume (1002), Hernio (1078), Murumendi (868), Izazpi (973), Hiruarrieta edo Samiño (933), Munoaundi (381) eta Xoxote (912).

Herri eta mendi hauez gain, inguruko leku esanguratsuenak ere, ahal den neurrian, jendeari erakustea izango litzateke lasterketaren nahia, hala nola, Azpeitiko tren museoa, Zelatungo bordak, Gipuzkoaren erdigunea, Beizama, Munoaundi, Burdin aroko herria, Loiolako basilika eta bere inguruak, Izarraitzeko atea, Xoxoteko aterpea, Elurtegia, Magdalenako ermita...

1. EGITARAUA



DOMUSA TEKNIK 40MLK Herritik herriarentzat

asteazkena, apirilak 29

- ▶ 18:30
Hitzaldia - Iktus baten ondorengo bizitza (a)normala
Iñigo Uriarte - Ictuencer
Lourdes Oyarbide - Ziklista ohia
Basazabal Jauregian

osteguna, apirilak 30

- Sanagustin Kulturgunean
- ▶ 18:00 - 19:00
Boluntarioen kamiseten banaketa
- ▶ 19:00
Lasterketaren aurkezpena
- ▶ 20:00
Lunch-a

ostirala, maiatzak 8

Hitzaldia: Zure Irrifarra Nire Indarra

- ▶ 10:30 Soreasu antzokian (Azpeitia) LH5 eta LH6ko ikasleentzat
- ▶ 15:15
Baztartxo antzokian (Azkoitia) LH5 eta LH6ko ikasleentzat
- ▶ 17:00 - 19:30
Baserritarren azoka
- ▶ 17:30 - 20:00
Dorsal banaketa

larunbata, maiatzak 9

AZPEITIKO PLAZA

- Dorsal banaketa
- ▶ 40MLK: 06:00 - 07:30
- ▶ 15MLK: 06:00 - 08:30



DOMUSA TEKNIK 40MLK

- ▶ 07:15
Irteera-gunea
- ▶ 07:45
Irteera-ekitaldia
- ▶ 08:00
IRTEERA



DOMUSA TEKNIK 15MLK

- ▶ 08:30
Irteera-gunea
- ▶ 08:45
Irteera-ekitaldia
- ▶ 09:00
IRTEERA
-
- ▶ 10:55
Domusa Teknik 15MLK
Lehen lasterkaria helmugan
- ▶ 13:45
Domusa Teknik 40MLK
Lehen lasterkaria helmuga

GUNE URDINA

- ▶ 09:55
Domusa Teknik 15MLK
Lehen lasterkaria
- ▶ 11:00 - 13:00
Sentsibilizazio jolasak
- ▶ 11:00 - 18:00
Puzgarriak
Jolas inklusiboak



REAL SOCIEDAD FUNDAZIOA

- ▶ 11:00 - 13:00
San Martingo egoiliarak
- ▶ 12:00 - 16:00
Pintxo eta edariak
Eusko Labelen eskutik
- ▶ 12:30
Domusa Teknik 40MLK
Lehen lasterkaria
- ▶ 17:45
Domusa Teknik 40MLK
Azken lasterkariei
ongi etorria
- XOXOTE**
- ▶ 12:30 - 14:30
Paella
Xoxoteko aterpetxean

20:15

SARI BANAKETA ETA BOLUNTARIOEN ARTEAN TENERIFERA BIDAIA BATEN ZOZKETA

20:30

Azpeitiko alde zaharrean



ELEKTROTXXARANGA



22:00

Azpeitiko plazan



Sünaz



DOMUSA
TEKNIK

23:30


Sanagustin Kulturgunean



Kulturaz
Azpeitiko Kultur Kooperatiba

2. LASTERKETA NON IKUSI (40MLK-65KM)

Lasterketaren ibilbideak hainbat aukera ematen ditu lasterketa ikusteko. Ondorengo grafikan ikusten dira puntu esanguratsuenak.




Ondoren, autoz zein oinez joan daitekeen hainbat puntu interesgarrienak aipatzen dira, korrikalariak gutxi gorabeherako pasako diren ordua adieraziz.

	Puntu KM	Aurrena	Azkena
AZPEITIA	0	08:00	08:00
Arroita tontorra	3,2	08:16	08:45
Sañu tontorra	4,5	08:23	08:55
Etumeta	7,1	08:37	09:15
Komuzulotza Anoa gunea	8,7	08:46	09:30
Gazume tontorra	11	08:58	10:09
Zelatun	12,4	09:06	10:25
Hernio tontorra	14	09:15	10:45
Iturburu Anoa gunea	19	09:42	11:20
Maramendi lepoa Anoa gunea	27	10:29	12:40
Murumendi tontorra	29,5	10:39	13:16
Mandubi Anoa gunea	33,9	11:03	13:55
Izazpi tontorra	38,6	11:29	15:00
Pagotxeta Anoa gunea	41,6	11:45	15:20
Samiño tontorra	43	11:53	15:51
Larrume txiki Anoa gunea	48,3	12:22	16:39
Ikasberri Anoa gunea	53,8	12:52	17:20
Langa Anoa gunea	56,8	13:08	18:00
Xoxote tontorra	58,3	13:16	18:55
Xoxote Anoa gunea	59,7	13:24	18:57
AZPEITIA	65	13:53	20:00


AUTOZ

ITURBURUKO ANOA POSTUA




19. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 9:30 aldera pasako da eta azkena 11:20 aldera.

Anoa postutik 300 metrotara, aparkaleku bat dago. Autoak han utzi eta oinez joateko aukera dago anoa gunera. Bestalde, GI-2634 errepidean Azpeitia-Tolosa noranzkoan, ezkerreko errail bat bideratuko da autoak aparkatzeko. Norbaitek Tolosa aldetik Azpeitiaruntz joatea nahiko balu, GI-3440 errepidea hartu beharko du Bidanian, Urrakiko mendatetik joanaz.




<https://goo.gl/maps/kmZrc6GxS7SxQvGj7>

MANDUBIAKO ANOA POSTUA




33,9. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 11:00 aldera pasako da eta azkena 13:55 aldera.

Mandubiko Bentan (Jatetxea) autoa aparkatzerik ez da egongo, baimenduek eta bertako langileak izan ezik. Aparkalekuan bertan egongo da anoa postua. GI-2635 errepidean ezingo da inondik inora autorik aparkatu. Horretarako, GI-3197 errepidea noranzko batekoa izango da ezkerreko erraila autoak aparkatzeko erabiliko delarik (Mandubia-Garin). Norbaitek Azpeitira bueltatzea nahiko balu, beheko bidegurutzeraino (Salbatore) jaitsi beharko du eta ondoren GI-2635 errepidea hartu Beasain-Mandubia noranzkoan.




<https://goo.gl/maps/qUXcgF5PY9o2rQBt8>

IZARRAITZEKO ATEA



53,8. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 12:30 aldera pasako da eta azkena 17:10 aldera.


Hemen autokarabaren aparkalekua egongo da kokatua. Autoentzako aparkaleku mugatua izango da, ez da komeni autoz bertaraino gerturatzea. Anoa gunee egokia duzue umeeekin etortzeko. Bertan, Anoa-gune URDINA denez, puzgarriak, jolasak, musika, jatekoa, eta abar egongo bait da.



<https://goo.gl/maps/U35btsFWQAa4V5o28>


OINEZ

KOMIZULOTZAKO ANOA POSTUA




8,7. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 8:40 aldera pasako da eta azkena 9:45 aldera.

Kotxez Etumeta auzora joan behar da eta errepide ertzean autoa kontuz aparkatu ondoren, oinez 2 Km-tara aurkitzen da anoa postua. Esan beharra daukagu, errepidea oso hestua dela eta 2 kotxe justu kabitzen direla errepidean, beraz, kontuz ibili. Trafiko asko ibil daiteke egun horretan.




<https://goo.gl/maps/eKKRVMvtoyypwTpw8>

ZELATUNGO BORDAK




12. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 9:00 aldera pasako da eta azkena 10:00 aldera.

Autoa Errezil-zein Iturriotzen utzi eta 1h30min inguruan igo daiteke Zelatunera. Bertan, zerbait jan edo edateko, Zelatungo Bordak dituzue. Ibilbidean Gazume edota Herniora igotzeko aukera ematen du.




XOXOTE




59,7. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 13:15 aldera pasako da eta azkena 19:00 aldera.

Azpeitin edo Attolan autoa utzi eta 1h30 inguruan Xoxotera igo daiteke. Bertan Xoxoteko Aterpetxea daukatzue zerbait jan edo edan nahi izanez gero eta gainera, 12:30etatik 14:30etara, **Paella eskainiko** da 5€tan. Tiketak bertan erosi ahal izango dira.



2.1 LASTERKETA NON IKUSI (15MLK-26KM)

Lasterketaren ibilbideak hainbat aukera ematen ditu lasterketa ikusteko. Ondorengo grafikan ikusten dira puntu esanguratsuenak.




Ondoren, autoz zein oinez joan daitekeen hainbat puntu interesgarrienak aipatzen dira, korrikalariak gutxi gorabeherako pasako diren ordua adieraziz.

	Puntu KM	Aurrena	Azkena
AZPEITIA	0	09:00	09:00
Larrume txiki Anoa gunea	8,9	09:40	10:41
Izarraitzeko atea Anoa gunea	14,7	10:00	11:22
Xoxote tontorra	20,7	10:41	13:07
Xoxote Anoa gunea	20,9	10:42	13:09
AZPEITIA	26	11:02	13:58


AUTOZ

LARRUME TXIKI ANOA POSTUA




8,9. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 9:40 aldera pasako da eta azkena 10:40 aldera.

Ez da gomendagarria bertara autoz joatea, leku gutxi baitago aparkatzeko. Anoa postutik 300 metrotara, baserri batzuk daude eta han aurki daitezke aparkatzeko leku apur batzuk.




<https://maps.app.goo.gl/i5rqMx4THTSvow6s5>

IZARRAITZEKO ATEA



14,7. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 10:00 aldera pasako da eta azkena 11:20 aldera.


Hemen autokarabaren aparkalekua egongo da kokatua. Autoentzako aparkaleku mugatua izango da, ez da komeni autoz bertaraino gerturatzea. Anoa gunee egokia duzue umeeekin joateko, bertan, Gune Urdina denez, puzgarriak, jolasak, musika, jatekoa eta abar egongo baitira.



<https://goo.gl/maps/U35btsFWQAa4V5o28>


QINEZ

XOXOTE



20,7. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 10:40 aldera pasako da eta azkena 13:00 aldera.

Azpeitin edo Attolan autoa utzi eta 1h30 inguruan Xoxotera igo daiteke. Bertan Xoxoteko Aterpetxea daukazue zerbait jan edo edan nahi izanez gero eta gainera, 12:30etatik 14:30etara, **Paella eskainiko** da 5€tan. Tiketak bertan erosi ahal izango dira.




3. APARKALEKUAK

Autoentzako parkinga Iraurgi Ikastetxeko Betharram eraikuntzan egongo da, **Paulo VI Auzunean**.



<https://goo.gl/maps/49G5PuKjznCNebLB7>

Autokarabanentzako parkinga Ikasberri Ikastolako eraikuntzan egongo da, **Loiolako Inazio Hiribidean**.



<https://goo.gl/maps/dQaYmctyTRqAx7M3A>

Autokarabanentzako bigarren parkinga, **Loiolako Basilikaren** ondoan egongo da.



<https://maps.app.goo.gl/KPXVncRWm48r8d3Y6>